

# TRAPULAMINETA

Les élèves de sixième du collège de Tardets, au Pays Basque, ont joué « Le trapoulaminet », d'Yves Garric, dans une traduction en basque, à l'initiative et sur une mise en scène de Frantxoa Cousteau, comédien, et Anne-Marie Etcheberry, enseignante. Voici cette traduction.

*En italique les dydascales*

## **Agerraldi 1**

\***Musika** *edo karrikako arrabots bat* : Jokolariek taulada zeharkatzen dute, eskuin/ezker.

\***Gizon batek** -«**Afitxa-gizona**» *deituko duguna- taulada zeharkatzen du hiru/lau aldiz, bizkarrean eta sabel gainean dituen taulatxoetan idatzia dena oihukatuz :*

**Afitxa gizona** : Trapulamineta, azken berrikuntza !... Jaun-andereak, erosi trapulamineta !... Trapulamineta denek etxean beharko duzuen, denek erabili beharko duzuen !... Trapulamineta : erosi ta goza !... Trapulamineta : erosi ta goza !...

\***Musika** : **Irratilaria** *aitzinatzen da tau<sup>da</sup> erd<sup>ra</sup>, mikroa eskuan eta entzungailuak beharrietan.*

\***Besteak** *irratilariaren gibelean emaiten dira, eta egoiten mugitu gabe.*

**Irratilaria** : Entzule maiteak, egun on !... "**Irrati bider bi**" estudiotik hemen gaituzue, goizean goizik, zazpiak bi gutti direla. Ixtan baten buruan, goizeko berriak, "**Etxek**" aurkezturik ; bainan lehenik, publizitatea...

\***Irratiliak**, *bere gibelean koro bat balu bezala agintzen du, denek elgarrekin erranen dutela :*

**Koroa** : (Agian kantatuz) : "**Trapulamineta, berrikuntza zoragarria !... Harrituko zirezte, erotuko !**"

**Irratilaria** : Trapulamineta... Opari zoragarria !... Egon erne !... Atxiki begia !... Saltegi on guzietan atxemanen duzue !

## **Agerraldi 2**

\***Musika bat** : (Telebixtako joko emankizun baten aurkezpen doinu bat).

\***Bi aktore** *sartzen dira, telebixtako iragarki baten grabatzeko. Aurpegi aintzinean pantaila bat atxikitzen dute, telean direla erakusten duena.*

\***Besteak** *gibelean emaiten dira, taulada ongi betez, mugitu gabe, edergailu gisa.*

**Aktore 1** : Ezin da !... Erotuko naiz !... Ez dakit gehiago zer egin !

**Aktore 2** : Trapulamineta entseatu duzu ?

**Aktore 1** : Trapulamineta ?

**Aktore 2** : Eta bai, Trapulamineta, berrikuntza berri-berria !... (Eskaintzen dio bat) : Tori !... Saia ezazu !... Hartu eta goza !

**Aktore 1** : (Irripartsu) : Zoragarria, bikaina !... Ene bizia aldatuko da !

**BIAK** : (*Erhia altxatuz, aho batez*) : TRAPULAMINETA !... EGUNEROKO LAGUNA !...

\***Musika bera** : -Denak ateratzen dira, **J.** eta **C.**  
-Bi aktoreak ateratzen dira.

### **Agerraldi 3**

\***Trapulaminet saltzailea** sartzen da, mahai ttipi bat eskuan : **C.** -tik, taulada erdira.  
\***Puska salgaiak** ongi antolatuta, oihuka hasten da :

**Saltzailea** : Trapulamineta !... Trapulamineta !... Egiazkoa, bakarra !...

**Jendeak** : (*Sartu eta ibiltzen dira, eskuin/ezker.*)

**Saltzailea** : Erosi trapulamineta !... Ederra, bikaina, pare-gabekoa !...

\***Bi ibiltari** hurbiltzen zaizkio, **J.**-tik.  
\***Jendeak** baratzen dira : "**itxura gelditze**".

**Ibiltari 1** : Ikusi duzu ?... Trapulamineta !...

**Ibiltari 2** : Bai, atzo telebixtan aipatu dute !

**Ibiltari 1** : Trapulaminetak harrituko gaitu !

**Ibiltari 2** : Trapulaminetak, bizia aldatuko dauku !

**Saltzailea** : Jaun andereak !... Eros ezazue trapulamineta ttipi bat !

**Ibiltari 1** : (**C.** aldera joanez) : Zonbat balio du ?

**Saltzailea** : Oh, gauza gutti : hamar euro !...

**Ibiltari 2** : (**J.**) : Hamar euro ?!... Emai'dazu bat, otoi...

**Saltzailea** : Hara, hara !... (*Trapulamineta emaiten dio*) : Hamar euro !... (*Sosa hartzen du.*)

**Ibiltari 1** : Eta nik, bi Trapulamineta !

**Saltzailea** : Goresmenak !... (*Trapulaminetak emaiten dizkio*) : Hogo euro !... (*Sosa hartzen dio*)

\***Bi ibiltariak** ateratzen dira, kontent, **J.**  
\***Musika edo karrikako arrabots bat** :  
\***Jendeak** ateratzen dira, **J.** eta **C.**

## **Agerraldi 4**

\***Saltzaileak**, mahaina hartu eta ateratzekotan da, **C**.

\***Bi ibiltari** hurbiltzen zaizkio, **J**, -tik.

\***Saltzaileak**, mahaina pausatzen du, **C**.

**Ibiltari 3** : Ene anaiak bi trapulaminet erosi ditu !

**Ibiltari 4** : Zure anaiak ?...

**Ibiltari 3** : Bai, nere anaiak.

**Ibiltari 4** : Zer dira, trapulaminetak ?

**Ibiltari 3** : Ez dakit : bainan erosi behar dira !

**Ibiltari 4** : Bainan zertarako ?

**Ibiltari 3** : Denek erosten dute, orduan... (*Saltzaileari hurbilten da, eta bostekoa altxatuz*) : Bost trapulaminet, plazer baduzu !

**Saltzailea** : Berrogoita hamar euro, plazer baduzu.... (*Puskak eman eta dirua hartzen du*).

**Ibiltari 4** : (*Bi bostekoak altxatu eta dirua luzatuz*) : Hamar tra... tra... tralupaminet !...

**Saltzailea** : (*Coullisse-etan duen hamarreko kutxa bat hartuz*) : Oizu !... Ehun euro, plazer baduzu.

**Ibiltari 3** : (*Bere laguna begiratu eta, dirua altxatuz*) : Bai, nik ere, beste bost !

**Saltzailea** : Biba zu, eta goresmenak !... Berrogoita hamar euro...

\**Bi erosleak ateratzen dira, kontent, J.*

\***Musika** edo **karrikako arrabots bera** :

## **Agerraldi 5**

\***Jendeak** sartzen dira, ibitzen eskuin/ezker, eta ateratzen dira.

\***Andde** bakarrik gelditzen da, akuriko, saltzailearen ondoan, C. Bere **aitak** deitzen du, kanpotik.

**Aita** : (J.-tik sartuz) : Zer ari zira Andde ?...

**Andde** : Aita (edo ama), trapulamineta nahi dut !

**Aita** : Ah ez, holakorik ez duzu ukanen !...

**Andde** : (*Kasik nigarrez*) : Aita, otoi !... Batto nahi dut, telebixtan bezalakoa !

**Aita** : Ezetz erran dautzut !... Bakea ta bi sos !

**Saltzailea** : (*Beti bere lekutik*) : Jauna, beha zazu, zure semea, nola triste den !...

**Andde** : (*Tematzen da*) : Trapulamineta nahi dut !

**Aita** : (*Idor*) : Aski eta aski !... Goazen etxera !

**Saltzailea** : Nik, lau trapulaminet eskaintzen dizkizut, bien prezioan...

**Andde** : (*Otoizka*) : Aita, otoi... Aitatxiri batto emanen diot...

**Aita** : Pffff !... Bon... Beraz, emazkidazu lau...

**Saltzailea** : Biba zu jauna !... (*lau trapulaminetak emaiten dizkio*) : Hogo euro...

**Aita** : (*Sosa emaiten dio. Gero, haurrari*) : Hemendik aitzina, eltzekaria jan beharko duzu, aditu ?!

\***Aita**/semeak joaiten dira, J.

\***Saltzaileak**, hogoi euroak eskuan, publikoari begi klixka bat egiten dio.

## **Agerraldi 6**

*\*Beste aita -edo ama- bat sartzen da orai, J.-tik, bere haurra eskutik tiratuz.*

**Ama** : (*Saltzaileari hurbilduz*) : To, trapulaminetak !... (*Irripartsu*) : Nahi zinueke bat, maitea ?

**Naia** : (*Trapulaminetak begiratuta*) : Booff !... (*Baztertzen da, J.-rat joanez*).

**Ama** : (*Ez du ulertzen*) : Beha zazu zoin pollitak diren !

**Naia** : Ez !... Ez dira batere pollitak !

**Saltzailea** : Zure urte betetzea da : eskaintzen dizut...

**Naia** : (*Buruarekin beti "EZ"*).

**Ama** : (*Saltzaileari*) : Sobera gastatua da... Bertzaldi batez, beharba...

**Saltzailea** : (*Haurrari*) : Ean, haurtxo, amari plazer egiteko !... Badakizu, denek erosten dute...

**Ama** : Zu izanen zira bakarra... trapulaminetik gabe...

**Naia** : Eta orduan zer ?!... Neri, berdin zait !

**Ama** : Gorri pollit hau hartzen dizut ?

**Naia** : Ez !... Itsusia da...

**Ama** : (*Kexu*) : Bon... Hala ere, bat hartuko dizut... Euh, ez... Bi !... Bai, bi !...

**Saltzailea** : Biba zu, anderea... (*Trapulaminetak emaiten dizkio*) : Hogo euro, plazer baduzu...

**Ama** : (*Haurrari*) : Zuk ere ukanen duzu, bertzek bezala !... Eta kitto !...

*\*Ateratzen dira, J. edo C.*

*\*Urrunean, auto eta hiriko arrabotsak :*

## **Agerraldi 7**

\***Saltzailea** publikoari buruz ; gogoetan ari da. Bat batean, "**clie**" : ideia bat badu.

\*Saltzaileak mahaina taulada aitzin/erdira ekartzen du. Radio/kazet bat pausatu. **Musika** :

\*Bi "**trapulaminet**" kartoin meta egiten ditu, mahainaren bi aldetan.

**Saltzailea** : (Publikoari) : Jaun andereak !... Zatozte, zatozte denak !... Trapulaminetak izigarri merke !... Erosi zure trapulamineta !

\***Musika** : **Jendeak** sartzen dira bi alderdietarik, errotuak.

\*Orai **Saltzaileak** publikoari bizkarra emaiten dio.

\***Musika geldi** : **Jendeak** baratzen dira : "**itxura gelditze**".

**Erosle 1** : Boata bat hartuko dut !

**Erosle 2** : Bi !... Bi enetako, otoi !

**Erosle 3** : Hiru !... Enetzat hiru boata !...

**Saltzailea** : Hurbil zaitezte !... Zatozte, zatozte denak !

\***Musika** : **Jendeak oihuka** ari dira.

\***Musika geldi** : **Jendeak** baratzen dira : "**itxura gelditze**".

**Erosle 1** : (**Erosle 2 -ri**) : Aaaii !... Zangoa lehertzen didazu !

**Erosle 2** : Aski duzu baztertea !...

**Erosle 3** : Jauna !... Jauna !... Beste bi boata, hauzoko haurrentzat !

\***Musika** : **Jendeak oihuka** ari dira.

\***Musika geldi** : **Jendeak** baratzen dira : "**itxura gelditze**".

**Saltzailea** : Denentzat izanen da... Ttipi, handi, mehe, eta lodientzat... Aitatxi, amatxi eta haur ttipientzat !...

\***Musika** : **Jendeak oihuka** ari dira.

\***Musika geldi** : **Jendeak** baratzen dira : "**itxura gelditze**".

**Erosle 1** : (**Besoa luzatuz**) : Ni !... Ni !... Ni !... Ni !...

**Erosle 2** : (**Besoa luzatuz**) : Ni !... Ni !... Ni !... Ni !...

**Erosle 3** : (**Besoa luzatuz**) : Ni !... Ni !... Ni !... Ni !...

**DENAK** : (**Besoak luzatuz**) : NIII !... NIII !... NIII !... NIII !... NIII !... NIII !...

\*Azkenean, erosleak ateratzen dira, paketak besapean, kontent...

\*Denak eraman dituzte : ez da kartoin bat ere gelditzen...

\*Mahainaren gainean : zaku handi bat, "**Euro**" gainean handizki markatua dela.

**Saltzailea** : (**Zakua publikoari erakusten du**) : Begira nere zakua !... Ez dut eguna galdu !...

\***Musika bat** : Zigarro bat ahoan eman, zakua hartu eta ateratzen da, **J.**

## **Agerraldi 8**

**Kondalari 1** : (J-tik sartuz) : Denek aipatzen dute, zahar eta gazteek... Denek, eta, bixtan dena : hurrek !...

\***Musika bera** :

- **Kondalariak 1-ek** mahaina hartu eta emaiten du xoko batean, J. (Ateratzen da, J.)

\***Naia** sartu eta mahainaren gainean jartzen da, J, bi edo hiru trapulaminet eskuetan dituela :

- Begiratzen ditu, metatzen ditu, saiatzen da bata bertzearen barnean emaitera...

- Dударик ez, gauza horiek zertako diren ez du ulertzen.

**Kondalari 2** : (C-tik sartuz, alki gora bat eskuan) : Denetan da solasgai : eta, bixtan dena, ostatuan.

\***Musika bera** : **Kondalari 2-ik** alki gora emaiten du, C. (Ateratzen da, C.)

## **Agerraldi 9**

\***Erosle 4 eta 5** sartzen dira. **Erosle 5** jartzen da, C. (alkian)

**Erosle 4** : (Erdian xutik, trapulaminet bat eskuan) : Trapulamineta hori, zer asmakuntza !

**Erosle 5** : (Egunkaria irakurritz, C.) : Nik, hogoita hamar baditut !

\***Naiak** ongi behatzen ditu, bere aldetik, J.

**Erosle 4** : Zerbaitetako dira, segur !

**Erosle 5** : Harrigarriak dira, espantagarriak !...

**Erosle 4** : Trapulamineta maitea, ene kuttuna, ene pollita...

**Erosle 5** : Eta gainera, merke dira !

**Naia** : (J.) : Barkatu, erakusten ahal didazue nola erabili behar diren ?

**Erosle 4** : (Dudakor) : Be... egia erran... (Bere lagunari) : Nola erabiltzen dira ?

**Erosle 5** : Nola erabiltzen diren... zer ?

**Erosle 4** : Be... trapulaminetak !...

**Erosle 5** : Erabili behar dira... behar den bezala...

**Erosle 4** : Ados, baina... nola ?

**Erosle 5** : (Aspertua) : Oh, aski otoi !... Zuk, gauzak beti konplikatu behar dituzu...

**Naia** : (J.) : Beraz, zuk ere, ez dakizu ?...

**Erosle 5** : (Aspertua) : Begira, orrialde handi bat badago egunkarian...

**Erosle 4** : Ados... baina horrek ez digu erraiten...

**Erosle 5** : (*Molde idorrean*) : Orai aski !... Nardatzen nauzue !...

**\*Musika bera :**

- **Saltzailea** sartzen da, **J.**
- **Naia** xutiarazten du eta bere tokian emaiten da, **J.**
- Mahai gainean jartzen da. Bere ondoan, zaku lodia "**euro**" gainean markatua duena.

## **Agerraldi 10**

**Saltzailea** : Bost mila saldu ditut egun !... Bost mila eta... hogoita bi !...

**Erosle 4** : (*Beti xutik, taulada erdian*) : Barkatu, jauna...

**Saltzailea** : ... Gehi ehunta hogoi mila interneten bidez...

**Naia** : (*Xutik, taulada erdian, "erosle 4"-en ondoan*) : Euh, zure trapulaminetak : nahi nuke jakin...

**Saltzailea** : ...Gehi ehun mila Espaniara, gehi Amerika, gehi Txina, gehi Japonia...

**Erosle 4** : (*Kexu*) : Zertan baliatzen dira trapulaminetak ?...

**Saltzailea** : (*Haserre*) : Bainan ALDE BAT erabiltzen dira !... Izigarri balioasak dira !...

**Erosle 5** : (*Beti jarririk, C.*) : Ixo, zuek biak : gizonak lana badu...

**Erosle 4** : Bon bon bon, bon, bon !... ("**Erosle 5**"-en *ezkerrean* emaiten da, *akuriko, C.*)

**Naia** : (*Xutik taulada erdian*) : Orduan, badakizue, bai ala ez ?...

**Erosle 4** : (*Trapulaminet bat erakutsiz*) : Behar bada, jaten da... (*Ausiki bat emaiten dio*) : Pua !

**Naia** : Bo... Ez du fitsik balio !... ("**Erosle 4**"-en *ezkerrean* emaiten da, *xutik, C.*)

**Erosle 5** : (*Bere buru gainean pausatuz*) : He, begira... Zer diozue ?... (*Bere zozoa eginen du.*)

**\*Musika bitxi bat :**



## **Agerraldi 11**

**Andde** : (*Sartzen da, J. bere aita (edo ama)-rekin*) : Aita, ikusi duzu ?... Gizonak... trapulamineta buru gainean eman du !... Irringarria da, eh ?...

**Erosle 5** : (*Gaitzitua, buru gainetik laster jalitzen du*) : Bai, eta zer ?!...

**Aita** : Andde, ixil zaite !... (*Jartzeko keinua egiten dio.*)

*\*Andde "Erosle 5"-en eskuinean emaiten da akuriko.*

*\*Aita J. aldean egonen da, xutik, saltzailearen ezkerrean.)*

**Erosle 4** : (*Beti C. puntatik*) : Jauna, badakizu, zuk zertarako baliatzen den hori ?

**Aita** : Ideiarik ez : baditut hogoi etxean, bainan beti kartoinean dira...

**Erosle 5** : (*Alki gainetik*) : Saltzaileak erran du IZIGARRI baliosa dela !...

**Saltzailea** : (*Burua altxatuz*) : He ?... Zer ?... Bai : IZIGARRI !... (*Sosa kondatzen du.*)

**Aita** : (*Taulada erdian, gauza eskuetan erabiliz*) : TRA-PU-LA-MI-NE-TA... Izen irringarria da !...

**Andde** : (*Gauza eskuetan erabiliz*) : Ez da batere irringarria, aita...

**Aita** : (*Trapulamineta hartu eta gibelera egiten du, denak hipnosia-loan sar-arazi nahian*) : Trapulamineta begira ezazue... Kontzentra zaitezte... Nere ustez, hiru sekunda barne, denak lokartuko zirezte... bat... bi... hiru...

*\*Musika bitxi bat. Ez da deusik gertatzen.*

**Aita** : Ez zirezte lokartzen ?!... Ez du deusik egiten ?!...

**DENAK** : (*Aho batez*) : DEUSIK !!...

## **Agerraldi 12**

**\*Musika bat** : *Orai denak sartzen dira, (J. edo C.-tik).*

**Erosle 6** : Jauna !... Mintzatu behar duzu !...

**Erosle 7** : Jauna !... Esplikatu behar diguzu !...

**Erosle 8** : Jauna !... Saltzen badakizu, bainan gero, tirrit !...

**Saltzailea** : (*Beti bere konduetan*) : Baiona, Donostia, Bilbo, Parise, Madrile, Los Angeles, Tokio, Shangai, Lima, Mexico !...

**\*Musika bat** : *Jakintsuna eta bere laguna sartzen dira, (J. edo C.-tik).*

## Agerraldi 13

<u>J.</u>	Jendeak		Jendeak		Jendeak	<u>C.</u>
	Saltzailea	Jakintsuna	Laguntzailea			
	Aita, bi haurrak, Erosle 5 eta 4					

**Jakintsuna** : (*Kartabla lodi, harro*) : Ikerketa zorrotz eta luze baten ondotik, orai egia deneri aitortu behar dizuet : aterabidea gauza hunen BARNEAN dago...  
(*Laguntzaileari*) : Laguntzaile, zuri !

**Laguntzailea** : ("*Erosle 5*" -en alki hartu eta erdian emaiten du.)  
(*Trapulamineta alki gainean pausatzen du.*)  
(*Zizel ttipi batekin idekitzera doa. Alferretan*) :  
Ezin dut, Jakintsun jauna, ezin dut !

**Jakintsuna** : Har'azu zizel handiago bat, Laguntzaile !... (*Taulada jendeez betea da*).

**Laguntzailea** : (*Handiago bat hartu eta entseiatzen da*) : Izigarri gogorra da, Jakintsun jauna !

**Jakintsuna** : Har'azu marteilu bat, zer deabru !

**Laguntzailea** : (*Marteiluarekin jo eta xintxikaten du ; eskuan hartzen du*) : Hara, Jakintsun jauna !

**Jakintsuna** : Eta ?... Zer da barnean, Laguntzaile ?

**Laguntzailea** : (*Ongi begiratuta*) : Be... fitsik, Jakintsun jauna...

**Jakintsuna** : Fitsik ?... Nola hori... fitsik, fitsik ?...

**Laguntzailea** : (*Umil umila*) : Fitsik fitsik, Jakintsun jauna !

**Jakintsuna** : (*Beti harro*) : Jende maiteak, ez beldur izan : nere ikerketa zientifikoa segituko dut !... Misterioa argituko dut !...

**Laguntzailea** : Baina... bazkaltzeko tenorea da, Jakintsun jauna !

**Jakintsuna** : Laguntzaile !... Ikerketa zientifikoak ez du idurikatzen !... lanerat !...

**\*Musika bera** :                      *Ateratzen dira*

## **Agerraldi 14**

**Erosle 9** : (*Saltzaileari*) : Oraingoan, jauna, dena esplikatu behar daukuzu !

**DENAK** : (*Aho batez*) : TRAPULAMINETAK : ZERTAKO DIRA ??

*\*Taulada guzia ongi betea da.*

**Erosle 10** : Ean, mintza zaite !

**Erosle 11** : Mintza zaite, deabru leizafina !

**Erosle 12** : Saltzaile txapelduna zira !...

**Erosle 13** : Saltzailea bai, bainan zerbaiten esplikatzeko, ZERO !

**Erosle 14** : Orai, behar daukuzu erakutsi !

**Erosle 15** : Zertako dira ba, trapulaminetak ?

**Saltzailea** : (*Doi bat hertsatua*) : IZIGARRI baliagarriak dira !

**Erosle 16** : Bainan zertan ?

**Erosle 17** : Mosko fin, errazu zerbait !...

**Erosle 18** : Mintza zaite azkenean !...

**Saltzailea** : (*Irriño batekin*) : Etxe handi bat erosi dut, isas-untzi bat, Ferrari bat, eta munduko diamante ederrena !...

**Erosle 19** : (*Trapulamineta bat botatzen dio*) : Gizon madarikatua !... Maltzurra !... Ohoina !

*\*Saltzaileak ihes egin nahi du, jende guziek trapulminetak botatzen dizkiotela.*

**DENAK** : (*Beti gibeletik*) : MALTZURRA !... OHOINA !...

*\*Denak ateratzen dira ; bakarrik, bi haur gelditzen direla, trapulamineten erdian.*

*\*Jostatzen dira.*

**Andde** : Ouaah !... Bikain !... Milaka baditugu !

**Naia** : Eta kitorik !... KITORIK !!

**Andde** : Ez dira elurra bezain hotzak !

**Naia** : Eta ez dira eskuan urtzen !

**Andde** : Super bikain !... Egun guziz borrokatzen ahalko gira, eta urte guzian !...

*\*Ateratzen dira, beti borrokan eta oihuka...*

**TRAPULAMINETA**

**Bukaera.**

*(Tauladara iristen diren ordenan)*

1. Afitxa-gizona
2. Irratilaria
3. Aktore 1
4. Aktore 2
5. Saltzailea *(Izaiten ahal dira 2 edo 3)*
6. Ibiltari 1
7. Ibiltari 2
8. Ibiltari 3
9. Ibiltari 4
10. Aita
11. Andde
12. Ama
13. Naia
14. Erosle 1
15. Erosle 2
16. Erosle 3
17. Bi kondalari
18. Erosle 4
19. Erosle 5
20. Erosle 6, 7, 8
21. Jakintsuna
22. Laguntzailea
23. Erosle 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19

*Tout à fait exceptionnellement, cette version basque de la pièce « Le trapoulaminet » d'Yves Garric est libre de droits d'auteur. Les noms de l'auteur et du traducteur, Frantxoa Cousteau, n'en sont pas moins obligatoires sur tout texte, tract, affiche ou article de presse relatif à cette pièce.*